

ERANSKINA	ANEXO
«Xabier Lete Nazioarteko VI. Poesia Saria 2021» emateko lehiaketa irekia arautzen duten oinarriak.	Bases por las que se regula el concurso público para la concesión del «VI Premio Internacional de Poesía Xabier Lete 2021».
1. Xedea.	1. Objeto.
Oinarri hauen xedea «Xabier Lete Nazioarteko VI. Poesia Saria 2021» emateko lehiaketa irekia arautzea da.	Es objeto de las presentes bases la regulación del concurso público para la concesión del «VI Premio Internacional de Poesía Xabier Lete 2021».
2. Parte hartzaileak.	2. Participantes.
Nahi duten idazle guztiek har dezakete parte, edozein leku eta nazionalitatekoak, lan bat edo gehiago aurkeztuz.	Podrán participar todos los/as escritores/as que lo deseen, de cualquier lugar y nacionalidad, con una o más obras.
Ezin izango dute lanik aurkeztu sari honen aurreko edizioetan sarituak izandakoek.	No podrán participar las personas ganadoras de las ediciones previas de este premio.
3. Obren betebeharrak.	3. Requisitos de las obras.
3.1. Lanak gai, neurri eta errima librekoak izango dira eta 500 lerro izan beharko dute gutxienez.	3.1. Las obras, de tema, rima y medida libres, deberán tener un mínimo de 500 versos.
3.2. Lanak, euskaraz idatziak, originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.	3.2. Las obras deberán ser escritas en euskera, originales e inéditas.
Nolanahi ere, aldizkarietan, antologietan edo sarean argitaratu diren poema bildumak ere onartuko dira, beti ere bilduma horien ehuneko hamarrena (% 10) baino gutxiago atera bada argitara. Lehiaketa honetara aurkeztu ondoren eta saria publiko egin aurretik alderdi hauetakoren batean aldaketaren bat gertatuko balitz, egilea behartuta dago antolatzaileei jakinaraztera.	En cuanto a los poemarios publicados con anterioridad sólo se aceptarán los que, en todo caso, se hubieran publicado parcialmente en revistas o antologías, o por medio de la Red, en no más de un diez por ciento (10 %) de sus poemas. Será obligación de los autores comunicar a la organización cualquier cambio que se produjera a este respecto con posterioridad a la entrega del trabajo y antes de la comunicación pública de la obra premiada.
3.3. Ez dira onartuko beste hizkuntza batetik itzulitako lanak.	3.3. No se admitirán obras traducidas de cualquier otra lengua.
4. Aurkezteko epea eta modua.	4. Plazo y modo de presentación.
4.1. Epea: obrak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 5ean amaituko da, 24:00etan (tokiko ordua). Une horretatik aurrera, online bidezko izena emateko ataria desgaitua geratuko da.	4.1. Plazo: el plazo de recepción de las obras finalizará el 5 de diciembre de 2021 a las 24:00 horas (hora local). A partir de ese momento, el portal de inscripción online quedará inhabilitado.
4.2. Aurkezteko modua: Lehiaketan izena ematea eta lanen aurkezpena modu telematikoan bakarrik egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako prestatutako “Nazioarteko Poesia Sariak” webgunearen bidez: https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKPoesiaSariakWEB/hasiera , urrats hauei jarraituz:	4.2. Modo de presentación: La inscripción en el Certamen y la presentación de los trabajos se hará exclusivamente de forma telemática, a través de la página web “Premios Internacionales de Poesía” habilitada para ello por la Diputación Foral de Gipuzkoa: https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKPoesiaSariakWEB/hasiera?locale=es , y siguiendo los siguientes pasos:

1.urratsa: "Izen-ematea" atalean honako datu pertsonal, dokumentu eta onarpen hauek sartuko dira:	1º paso: En el apartado "Inscripción" se incluirán los siguientes datos personales, documentos y aceptaciones:
1.— Egilearen izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa.	1.— Nombre, apellidos, dirección, e-mail y teléfono del autor o autora.
2.— Nortasun Agiri Nazionalaren bi aldeak, eskaneatuta edo argazkia, jpg formatoan.	2.— Escaneo o fotografía del Documento Nacional de Identidad por ambas caras, en formato jpg.
3.— Sari honen oinarriak eta baldintzak onartzea, honako hauek bermatuz: bere egiletza eta lanaren izaera argitaragabea, osoa edo partziala, beste lehiaketa batean saririk jaso ez izana, eta sinatzaileak lanaren gaineko ustiapen eskubide guztien erabilera libredua.	3.— Aceptación de las bases y condiciones de este Premio, garantizando la autoría propia y el carácter inédito, total o parcial de la obra, que la misma no ha sido premiada en otro certamen y que quien la firma tiene la libre disposición de todos los derechos de explotación sobre la obra en cualquier forma.
4.— Datu pertsonalen babeseko klausula onartzea.	4.— Aceptación de la cláusula de protección de datos personales.
2. urratsa: Izen-ematea egin ostean, parte hartzaileak isilpeko kode bat jasoko du erregistratu duen helbide elektronikoan. Kode horrek balioko du lehiatzen den lana modu anonimoan aurkezteko.	2º paso: Una vez realizada la inscripción, la/el participante recibirá un código secreto en la dirección de correo electrónico que haya registrado. Dicho código servirá para presentar la obra a concurso de forma anónima.
3. urratsa: "Obra gehitu" atalean honako datu eta dokumentu hauek sartuko dira:	3º paso: En el apartado "Añadir obra" se incluirán los siguientes datos y documentos:
1.— NAN zenbakia	1.— El número de DNI
2.— Jasotako kode isilpekoa eta besterenezina.	2.— El código secreto e intransferible recibido.
3.— Lehiaketara aurkeztutako lanaren izenburua.	3.— El título de la obra presentada a concurso.
4.— Lehiaketara aurkeztutako lana PDF formatuan, izenburuarekin bakarrik identifikatua. Beraz, ez du egilea identifikatzeko moduko xehetasunik izango. Lanak DIN A4 formatuko orrietan (210 x 297 mm) eta tarte bikoitzean idatzita aurkeztuko dira.	4.— La obra presentada a concurso en formato PDF, identificada solamente con su título. Carecerá por tanto de detalles que puedan identificar a la autora o autor. Las obras habrán de presentarse en hojas de formato DIN A4 (210 x 297 mm) escritas a doble espacio.
— "Nire obra" atalean parte-hartzaileak bere obra sartuta dagoen egiaztatu ahal izango du, eta, beharrezkotzat jotzen badu, aldatu ahal izango du, aurkezteko epearen barnean.	— En el apartado "Mi obra" la persona participante podrá comprobar si su obra está incluida y también cambiarla, si lo estima necesario, dentro del plazo de presentación.
— Inola ere ez da onartuko beste modu batera bidalitako alerik, hala nola posta elektronikoz, postaz, edo aurrez aurre.	— En ningún caso se aceptarán ejemplares enviados de otro modo, como correo electrónico, correo postal, o presencial.
5. Saria.	5. Premio.
Sari bakarra egongo da, 12.000,00 euro gordinekoa, eta likidazioa indarrean dagoen zerga alorreko legeriaren arabera egingo da. Horrez gain, irabazleari garaikur artistiko bat emango zaio.	La dotación del premio, único, será de 12.000,00 euros brutos y su liquidación queda sujeta a la legislación tributaria vigente. Se entregará también a la persona ganadora un elemento artístico acreditativo.
6. Epaimahaia.	6. Jurado.
Saria lehiakortasun erregimenean emango da. Horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak Epaimahai bat izendatuko du, epaimahai hori literaturan adituak diren pertsonak osatuko dute.	La concesión del premio se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, a tal efecto la Diputación Foral de Gipuzkoa designará un Jurado constituido por especialistas en literatura.
Epaimahai kideak zeintzuk izango diren jendaurrean jakinaraziko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.	La composición de este Jurado se hará pública y se dará a conocer oportunamente mediante su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

7. Saria ematea.	7. Concesión.
Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak, Epaimahaiaren proposamena kontuan hartuz, deialdia ebatziko du, eta betegabekotzat deklaratu ahal izango du. Sariaren irabazlea 2022ko martxoan jakinaraziko da publikoki. Erabakia apelaezina izango da.	El diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes atendiendo al fallo del Jurado, resolverá la convocatoria, pudiendo declararla desierta. La concesión del premio se hará pública en el mes de marzo de 2022. El fallo será inapelable.
8. Saritutako obraren argitalpena.	8. Publicación de la obra premiada.
Saritutako obra poesian espezializatutako argitaletxe ospetsu batek argitaratuko du, edizio zaindu batean. Xabier Leteren oroimenaren eta bere obraren garrantzia kontuan izanik, sari honen edizio desberdinetan saritutako lanak argitaratzeko bereziki sortu den bilduman argitaratuko da.	La obra premiada será publicada en una edición esmerada por una editorial de prestigio en la edición de poesía. Considerando el alto significado de la obra y memoria de Xabier Leter, se publicará en la colección exclusiva destinada a acoger la edición de las obras ganadoras de las distintas ediciones de este premio.
9. Saritutako egilearen eskubideak.	9. Derechos de quien obtenga el premio.
Saria jasotzen duen egileak, eskubidea du:	La persona que obtenga el premio tendrá derecho a:
a) Bere obra argitaratuaren 100 ale jasotzeko.	a) Recibir cien ejemplares de su obra editada.
b) Sariari dagokion diru-kopurua jasotzeko, horrekin bere jabetza eskubideak betez, bai imprimaketa bai prozesu digitalean edo/eta Interneten bitartez.	b) Recibir la dotación económica asignada al premio, que colma los derechos de autor/a, tanto mediante impresión como en proceso digital y/o a través de Internet.
c) Jose Ramon Anda eskultoreak egindako sariaren garaikurra den artelana jasotzeko.	c) Recibir el elemento artístico acreditativo del premio, realizado por el escultor Jose Ramón Anda.
10. Saritutako egilearen betebeharrak.	10. Obligaciones de quien obtenga el premio.
Saritutako egileak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:	La persona que obtenga el premio se compromete a:
a) Saritutako lanaren geroko edozein ediziotan obrak saria lortu duela aipatzea, modu nabarmenean, honako indikazioarekin: «Xabier Leter Nazioarteko VI. Poesia Saria 2021».	a) Hacer constar de manera destacada en cualquier edición posterior de la obra, que la misma ha obtenido el galardón con la indicación: «VI Premio Internacional de Poesía Xabier Leter 2021».
b) Jabetza Intelektualari buruzko apirilaren 12ko 1/1996 Legearen arabera, saritutako obra argitaratzeko beharrezkoak diren jabetza intelektualaren eskubideak lagatzea.	b) Ceder los derechos de propiedad intelectual que sean precisos conforme a la Ley 1/1996, de 12 de abril, de Propiedad Intelectual para la edición de la obra premiada.
11. Parte hartzea, interpretazioa eta bestelakoak.	11. Participación, interpretación y otras consideraciones.
Sari honetan parte hartzen duten pertsona guztiek oinarriak onartzen dituzte bere osotasunean.	Las personas que participen en este premio asumen la total aceptación de las bases.
Oinarri hauen interpretazioari buruz sor litekeen edozein zalantza Gipuzkoako Foru Aldundiak ebatziko du, bere Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.	Cualquier duda que pudiera surgir respecto de la interpretación de las presentes bases será resuelta por la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de su Dirección General de Cultura.

Epaimahaiak ebatziko du, irizpide literarioekin soilik, aipatuak izan ez diren alderdi guztiak.	El Jurado resolverá con criterios estrictamente literarios todos los aspectos que no hayan sido contemplados.
Sarituak izan ez diren jatorrizko lanak suntsituak izango dira eta itzultze eskaerak ez dira onartuko.	Los originales no premiados serán destruidos y no se admitirán solicitudes de devolución.
12. Aurrekontua, programa eta partida.	12. Presupuesto, programa y partida.
Deialdi honetarako 12.000 euroko zenbatekoa xedatu da 2022ko aurrekontuaren kargu.	Se destina a esta convocatoria la cantidad de 12.000 euros, con cargo a los presupuestos del año 2022.